

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko apirilaK 5 · 1307 zenbakia



SARRASKIAREN AURREAN EIBAR PALESTINAREKIN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKi

ASEGURUAK
Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika Clínica dental
Fermin Calbeton 19-3 esk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@ppadent

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702896

arat.
HORTE KLINIKA CLINICA DENTAL

**ZURE
IRRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratclinika.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
RPS 2076

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 kolegiata s/ku.

- INDIKATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Puntzioa eta TRATAMENDUAK
- K-terapia + HIPOKRESIBIA

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ABRAGUSTA, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com



Esku onetan egotearen
ziurtasuna.

20.000tik gora gaitasun gaitur,
Ezartu eta egun anbarre berriak.



bista eder
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistader.es

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tinoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

Dra. Laura
Martinez



Dr. Alejandro
Recas

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Palestinari elkartasuna adierazteko taldea sortu da herrian eta hainbat ekintza egin ditu urrian Israelen aurkako eraso areagotu duen momentutik. Taldeko Nordin Ghacham Hachmioune eta Maider Irisarriekin egon gara Palestinan gertatzen ari denaren eta taldearen ekintzen berri jakiteko.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Yanire Sagredo

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

("...eta kitto!" k ez du bere gain
hartzeko aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Hortik esanak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

2014. urtean, Txinan Olinpiar Jokoak izan zirenean, Pekinek Mendebaldean jarria zuen arreta; hango komunikabideak besoak zabalik hartzen zituzten Pekinen, eta orain, aldiz, hori aldatzen ari da. Mendebaldeko komunikabideak nahi adina haserretu daitezke; ez dute ezer aldatzerik lortuko. Txinak azken urteotan ikuspegia aldatu du, eta ez du Mendebaldean jarria arreta. Jokoan dagoena harago doa: Pekinek azkenaldian hainbeste aipatzen duen mundu multipolar horren sorrera, Mendebaldearen guztiahaltasunaren amaiera.

OLATZ URKIA, kazetaria Pekinen

Anwar Ibrahim Malaysiako lehen ministroa Berlingen izan da eta, ohizkoa den bezala, prentsaurreko bat eman zuen Scholz kantzilerrarekin. Guztiz ezohizkoa den zerbait gertatu zen. Palestinan gertatzen denaren aurrean, alemanak Israelen defenditzeko eskubidea aipatu zuen, eta malaysiarrak sutsuki erantzun zion esanez kontuan hartu behar dela palestinar herria azken hirurogei urteetan jasaten ari den kolonizazioa eta errepresioa. Kezkagarria da EBko herrialde gehienetako agintari politiko nagusienak ez jabetzea Palestinako sarraskiaren kontuan dituzten jarrerak minoritarioak direla munduan, eta beste gai batzuekin berdina gertatzen dela. Sakonagoa den fenomeno bat ari da gertatzen: Europaren ahalmena, autoritate morala, eragiteko gaitasuna eta prestigioa gero eta txikiagoak dira, eta horretaz kontziente ez izatea kaltegarria izan daiteke eremu askotan.

IÑIGO LAMARCA, Arartekoa izandakoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera


OTZARA → Zumezko saskia, ogia eta jatekoa eroatekoa. "Otzaria bete intxaur batu genduan".

OZTOZTAN → Ozta-ozta, justu-justu. "Oztoztan zutintzen zan, baiña tentetu arren, ezin zuzendu gizonori".

1927

Victoria Eugenia erregina alabekin Markeskuan

Argazkian Victoria Eugenia erregina, Alfonso XIII.aren emaztea ageri da (soineko ilunarekin), Beatriz eta Maria Cristina alabekin batera, Markeskua jauregiko lorategian.
GURE GIPUZKOA
INDALECIO OJANGUREN FONDOA



Farmaziak

BARIXAKUA 5
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 11
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 12
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitela	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria Etxeberria Alvarez.** 93 urte. 2024-03-20.
- **Beatriz Irureta Manzidor.** 93 urte. 2024-03-23.
- **Sebastiana Azpeitia Iturzaeta.** 93 urte. 2024-03-24.
- **Ramon Argiñao Urionabarenetxea.** 90 urte. 2024-03-24.
- **Angel Sanchez Sarasua.** 70 urte. 2024-03-24.
- **Dolores Aranzeta Zabala.** 85 urte. 2024-03-25.
- **Lide Mujika Ibarluzea.** 101 urte. 2024-03-27.
- **Julio Miguez Barracel.** 90 urte. 2024-04-01.

Jaiotakoak

- **Ibai Betondo Infante.** 2024-03-15.
- **Ager Barroso Mora.** 2024-03-19.
- **Celeste Ipus Garcia.** 2024-03-20.



Debabarreneko Zaporeak Lesbos erronkako antolatzaileak eta laguntzaileak Urkotroniken elkartu ziren, Grezian dauden errefuxiatuentzat batutako janaria bidali aurretik.

Orain arteko marka guztiak gainditu dira Zaporeak Lesbos erronkan

Debabarreneko Zaporeak Lesbos erronkaren emaitzak eman zituzten ezagutzera aurreko astean, Urkotroniken instalazioetan egindako ekitaldian, eta antolatzaileak oso pozik azaldu ziren, aurreikusten zituzten emaitzak goitik bete direlako. Jakinarazi zutenez, 13.000 eurotik gora bildu dituzte dagoeneko, “kontuan izanda udal batzuetako partidak ez ditugula jaso oraindik”.

Aurtengo kanpainan bildutako elikagaiak ere asko izan dira: “Guztira zenbat tona diren Donostian zenbatuko dute, baina badakigu iazkoa gainditu dugula, askorengatik”.

Ondoren, eskertzen arloari heldu zioten, eta hor ere zerrenda luzea aipatu zuten: “Hasteko, Debabarreneko biztanle guztiak; baita Urkotronik enpresari ere, gu hartzeko izan duen eskuzabaltasunagatik, kafe eta guzti; aurten lagundu dituzten boluntarioei, inoiz baino gehia-

go izan direlako, Debabarrenean ekipo bikaina osatzera eraman gaituena; erronkaren amaiera posible egiten duten sukaldari guztiak; eta, jakina, inolako pegasarik gabe lagundu dituzten zortzi Udalei”. Azkenik, kontuan izan zituzten baita babesle garrantzitsuenak ere: “Cartonajes Eibar, Baserria Km0, Bacalaos Alkorta, Eroski, Azkonizaga, Debegesa, Tekniker, Eibarko Artisten Elkarte, Ederto Harategi Elkarte, Mecanizados Matxaria, Arat

Hortz-Klinika, Ermuko Minbizia- ren Elkarte, SD Eibar, Guridi eta Eibarko Klub Deportiboa”.

Eta, eskertzekin amaitzeko, honako hauek ere aipatu zituzten: “Zelan ez, eskualdeko ikastetxe eta jubiletxe guztiak, Juanma Cano eta Maite Lorenzo, Agustin Gomez DJ-a, Ikasten eta Kaleetan Kantuz-en parte-hartzea animazioan, ...eta kitto! eta Joseba Garcia, maketazio eta hedapen lanarengatik, komunikabide guztiak gure berri emateagatik, kaxekin ibili diren inurritxo guztiak, lan gogorrena euren gain hartu dutelako... Mundu guztiari, azken batean, eguneroko otordu duin baten alde egindakoarengatik... Erronka gainditua beste behin!”.

Errifan zozketan saritutako zenbakiak

Aurrekoarekin batera, aurtengo errifan zozketaren berri ere eman zuten Zaporeak proiektukoek: Sagarra jatetxeko afaria eta Elisabet Egurenen artelana, 597 zenbakiarentzat; Salegi jatetxeko afaria eta Maite Zangituren artelana, 437 zenbakiarentzat; Baratze jatetxeko afaria eta Esteban Orozen artelana, 2.104 zenbakiarentzat; Belaustegi jatetxeko afaria eta Pepi Corraeren artelana, 3.686 zenbakiarentzat; Amatxi jatetxeko afaria eta Cristina Azpiriren artelana, 3.235 zenbakiarentzat; Mendiola jatetxeko afaria eta Fernando Dosantosen artelana, 2.102 zenbakiarentzat; Kontent jatetxeko afaria eta Mauri Martinen artelana, 2.737 zenbakiarentzat; eta Landa jatetxeko afaria eta Esther Galarzaren artelana, 2.468 zenbakiarentzat.

Errifak erosi dituztenekin bakarrik, Zaporeak-eko antolatzaileen esanetan, 5.100 euro jaso dituzte, “hau da, Lesbosen bi egunerako bazkaria egiteko lain”.



Eibarko historia eta ondare industrialari ezagutzeko bisitak egin dira

Eibarko herriaren historiari eta ondare industrialari buruzko azalpenak jaso dituzte hainbat taldek, Aste Santuan Nerea Alustiza historialariaren eskutik herrian egin diren bisita gidatueta. San Andres parrokiatik Estaziño kaleraino, herriaren historia gertutik ezagutzeko aukera izan dute parte hartu dutenek: Eibarrek Gerra Zibilean jasan zuen aldaketa gogorra eta herriaren ondorengo susperraldia, eta herriko enpresa enblematiko batzuk aipatu ziren, hala nola El Casco, Laspiur, Aurrera edo BH.



Lata birziklatuetatik horma-irudia sortzeko 'Latia emon!' izeneko ekimena martxan

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta, Debegesak eta Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak, Eibarko Udalarekin lankidetzan, Latia emon! izeneko ekimena antolatu dute. Horren bidez, parte hartzen duten erakundeek lata birziklatuetatik sortutako horma-irudiak erakusgai ipiniko dituzte Untzaga plazan ekainaren 5ean. Horretarako, apiriletik aurrera, Azitain udal institutuko LHko eta IHPko ikasleek

egindako edukiontzia jarriko dira Eibarko zenbait gune estrategikotan. Horma-irudia egin nahi duten erakunde guztiek har dezakete parte, www.debegesa.eus webgunean dagoen formularioa beteta (apirilaren 11n amaituko da epea). Debegesa arduratuko da horma-irudia egiteko materiala eta euskarria doan banatzeaz. Ondoren, EOLHUIko ikasleak erakunde bakoitzera joango dira, horma-irudia nola egin azaltzeko.



Informazio puntua udaletxean
(apirilaren 8tik 21era)
astelehena (16:15 - 18:15), asteazkena
eta ostirala (10:00 - 14:00)

**EGIZU BAT TEK EIBAR-EKIN,
AISE, AZKAR ETA ERRAZ**



www.tekeibar.eus/eu/
info@tekeibar.eus
900 859 695





Auzoak biziberritzeko neurriak jaso dituzte EAJ eta PSEren arteko aurrekontu akordioan

2024rako udal aurrekontuen inguruan jeltzaleek eta sozialistek lortutako akordioaren xehetasunak eman zituzten EAJ-PNVko udal ordezkariak Aste Santu aurretik, Urkin egindako prentsaurrekoan. Josu Mendicute bozeramaile jeltzaleak, Alberto De la Hoz EAJko ogasun zinegotziak eta Amaia Albizu eta Jon Perez zinegotziek agerraldian esan zuten, Urki auzoan Udalbus zerbitzua berriz martxan ipintzeko konpromisoa hartu dute, besteak beste. Izan ere, nabarmendu zuten, bi taldeek sinatutako testuak hainbat neurri jasotzen ditu Eibarko auzoak biziberritu eta bertako ekonomia

sustatzeko. Nabarmendu dutenez, “lortutako akordioak neurri sorta bat jasotzen du, auzoak bizitzeko eta elkarrekin egoteko eremu hobek izan daitezten. Jarduera eta espazio publikoak dituzten lokalak nahi ditugu, gizarteratzeko, auzoak bizitzeko gero eta leku hobek izateko”. Jeltzaleen berbetan, “auzoak, aparkalekuak, haurrak eta gazteak, horiek dira 2024ko aurrekontu honetan aldarrikatu eta islatu ditugun atalak”. Horrela, EAJ-PNVk eta PSE-EEk adostutako aurrekontu-akordioak 1,3 milioi euroak gainditzen ditu, urtarrilean EAJk zuzenketa bidez aurkeztutako 17 ekimenetan.

1969koen kintadan parte hartzeko izen-ematea martitzenean amaituko da

Martitzenean, apirilaren 9an, amaituko da 1969an jaiotako bazkari-jaian parte hartzeko izen-ematea. Horretarako 80 euro sartu beharko ditu ES49 2080 3619 2130 4007 1817 kontuan (Abanca), izen-abizenak eta “Kintada 1969” ipinita.

Urte horretan jaiotakoak apirilaren 13an elkartuko dira, 13:00 aldera Untzagan. Argazkia egin eta txikiteoan ibiliko dira, ondoren Unzaga Plaza hotolean bazkaltzeko. Arno DJak girotuko du bazkalostea, 80ko hamarkadako musikarekin.

500 arbola landatuko dituzte domekan, Zuhaitz Eguna ospatzeko

Domekan ospatuko da Zuhaitz Eguna Eibarren, Udaleko Ingurumen Sailak, Eibarko Baso Biziak elkartearekin eta Lurguia Fundazioarekin elkarlanean antolatuta. Landaketak Urkoren magalean, Udalak erosi berri duen Pagae-gikortako lursailean egingo dira. Antolatzaileen berbetan, “orain arte zeuden pinuak bota direnez, 500 zuhaitz edo zuhaixka autoktono (otsalizarra, pagoa, sahasa, ahuntz-sahas, urkia, haritza, gorostia, artea, gaztainondoa, zuhandorra, hurritza, elorri zuria, zumalakarra eta gerezi ondoa) landatuko ditugu”. Udalak berriki erosi duen lursailean biodibertsitatea, paisaia eta ziklo hidrokologoa berreskuratu nahi dute eta, horretarako, 500 arbola horiez gain, aurten beste 5.500 arbola landatu nahi dituzte.



642 zenbakiari egokitu zaio pentsionisten otarra

Aurreko astean, martxoaren 25ean, egin zuten otarraren zozketa Eibarko Pentsiodunen Taldeko kideek, eta saritutako zenbakia 642 izan da. Apirilaren 25era arteko epea dauka irabazleak. Ez bada adierazitako epean azaltzen, zozketa berriro egingo dutela esan dute antolatzaileek.



Udala eta Eusko Jaurlaritza bilduko dira, langabezia tasa nola murriztu aztertzeko

Udala Eusko Jaurlaritzako Enplegu sailarekin bilduko da, langabeziari buruzko azken datuak aztertu eta horiek murrizteko neurriak hartzeko. Hala esan zuten Jon Iraola alkateak eta Vanesa Hortas Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako zinegotziak, Eibarren enplegua sustatzeko Udalak 2023an abian jarritako ekintzen berri emateko eskaintako prentsaurrekoan. Azaldutakoari jarraituz, ekintza horiek, alde batetik,

kontratazioa sustatzeko programa eta neurrietan eta, bestetik, Eibar-ko langabeen lanbide-heziketan gauzatu dira. 2023an, enpresentzako zuzeneko laguntzak 323.880 eurokoak izan ziren, eta 33 lagun kontratatu ziren. Gainera, Udalak 17 pertsona gehiago kontratatu zituen proiektu espezifikoak gauzatzeko. Martxoko datuen arabera, 1.569 lagun daude langabezian Eibarren eta langabezia-tasa %12,52koa da.

Astlehenean hasiko da errenta eta ondarea aitortzeko kanpaina

Aurtengo kanpaina apirilaren 8an abiatuko da Gipuzkoan. Uztailaren 1a bitartean onartu ahal izango dira errenta autolikidazio proposamenak. Bestalde, errenta eta ondarearen Internet modalitateari dagokionez, epea apirilaren 11n hasi eta uztailaren 1ean amaituko da. Azkenik, errenta mekanizatua egiteko epea apirilaren 16an zabaldu eta uztailaren 1ean amaituko da; kasu horretan hitzordua apirilaren 12tik aurrera eskatu ahal izango da.

Aitorpenak aurkezteko hiru modu egongo dira aurtien ere: Proposamenarekin ados izanez gero, telefonoz edo Internet bidez onar daiteke (iaz euretako %83,3 onartu ziren). Mekanizatuari dagokionez, telefonoz edo Internet bidez aurrez eskatuz gero, aitortpena egiten lagunduko dute bulegoetan. Eta Internet bidezkoan, laguntza programaz baliatuta, Internet bidez bidali daiteke aitortpena. Informazio guztia Interneten, www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/errenta helbidean ikus daiteke..

Barixakuak Jolasian apirilean



Apirilak 12
Txaltxa Zelai / Untzaga

Apirilak 19
Torrekua

Apirilak 26
Urkizu



Jolas dibertigarriak
umeentzat!



1937ko apirilaren 25ean gertatu zen Eibarko bonbardaketa. 30 pertsona baino gehiago hil ziren, eta herria suntsituta geratu zen.

Eibar ere bonbardatu zuten. GAC lantegiak armak egiten zituen eta hura bonbardatzen joan ziren hegazkinak. Ondoko etxeko bateko alabak besoa galdu zuen. Untzaga ingurua beranduago bonbardatu zuten, ia gerra bukatzeaz zegoela. Ehunka eibartar hil zituzten.

Eibar bonbardatu zuten, gerra amaitzeaz zegoela

Bartolo Arriola Garate
(1912 – 2012)



Mendaron jaio arren, zazpi urte besterik ez zituela etorri zen Eibarrera bere familia guztiarekin batera. Eibarko euskara zerabilen. Gerra aurreko kontuak oso ondo gogoratzen zituen: Eibarko kaleak, presak, errotak, eskolak, jolasak, kirolak eta abar. Buru argia zuen eta hizlari bikaina zen; Eibarko historia eta hizkera jasotzeko hainbat proiektutan hartu zuen parte: *Eibarrera jatorraren bidetik*, *Eibartarren Ahotan* eta abar. 1962. urtean *Zatixa* elkarte gastronomikoa sortu zuten. Elkarriketarik gehienak elkartean bertan egin izan zitzaizkion, Agustín Barinaga lagunarekin batera.

Bartolo Arriolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Eibarren egon ziran, ezta, bonbardeo batzuk?] Bai, Ibarkurutzian hil zuan zerekoa, loterixetako mutilla. Ruperto pelukeruui hankia kendu otsanian (...) Juaniton alabiari, gure lagun baten alabiari besua. Baiña hori zan oin Mendiguren y Zarraoa egondako taillarra Arraguetan. Han zera zeuan, taillarra zeuan orduan GACiana, eta GACiak itten zittuan armak, GACia bonbardeatzen joan zian, da GACen beste kalia zeon hori neska hori refujixua ekan etxeko sotantuan sartuta. Eta hango borbardeo zatixak besua kendu etsan. Erreka bittartetik. [Arikittanian?] Arikittaneko zubixan onduan. Oin etxia erdi inda badaok ba han, hasitta, han etxe bat jeuan, hiru pisoko etxe bat jeuan, etxe zahar bat. Da sotantuan, igeltserua aitta neskiana, eta harek jekan beran lanerako, gordetzeko leku hori. Da hantxe lekuan daozela bonbardeuari igesi, albotik etorri metraillia ta besua kendu etsan (...).

LAN ESKAINTZA

Kultur aniztasun eta elkarbizitzarako teknikaria behar da

ESKATUKO ZAIO

- Hezkuntzarekin eta gizartearekin lotura duten ikasketak (irakaskuntza, gizarte-hezkuntza...)
- Euskara ondo menperatzea, ahoz zein idatziz

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi erdiko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin)
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea
- Ordutegi malgua
- Proiektu erakargarria

BALORATUKO DA

- Eibartarra izatea eta errealitate soziolinguistikoa ezagutzea
- Euskaigintzan edo gizarte mugimenduan eskarmentua izatea
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna izatea
- Gidabaimena eta kotxea

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus

 **etakitto!**
euskara elkarte



AURREMATRIKULA

ALDATZE
BATXILERGOA

**Apirilaren
8tik 19ra**



*Nahi bezain urrun
iristeko aukera*

American High
School Diploma
www.academica.school



Probidentzia Andra Mari - Aldatze Ikastetxea
Aldatze kalea, 5 - 20600 Eibar
943 70 11 50 - aldatze@aldatze.org - www.aldatze.eus



Ezin beste alde batera begiratu

lazko urriaren 7az geroztik sutan da Palestina. Egoera ez da askoz hobeia izan palestinarentzat azken mendean, baina egun horretan Hamasek egindako erasoaren ondoren, Israelek are gehiago gogortu du palestinarren aurkako eraso eta infernu bihurtu ditu euren lurrak. Horren aurrean, eibartarrek ez dute beste alde batera begiratu eta Palestinarekin elkartasuna adierazteko hainbat ekintza egiten dihardute.

BIDEOA



O hituta geunden Israel Palestinako lurrak bereganatzen eta palestinaren bizimodua txartzten ikustera eta, azken hilabeteetako oldarraldiaren ondoren, dagoeneko ohitu gara gero eta hildako, bonbardaketa, bortxaketa eta bes-telako jazarpen gehiago ikustera. “Jendearentzat datu bat gehiago bihurtu dira eta gizarte moduan ezin dugu hori onartu”, esan digu Mainer Irisarrik. Nordin Ghacham Hachmiounerekin batera egon da gurean Eibar Palestinarekin eta Gerrarik Ez taldeek egiten duten jarduna azaltzeko eta, bide batez, Palestinan gertatzen ari denaren berri eta euren iritzia emateko.

Momentuko egoera zehatza zein den azaltzea ez da erraza, Israelen erasoak egunero gertatzen dire-lako, baina Eibar Palestinarekin taldekoek datu batzuk eman dizkigute, gaiaren larritasuna datuetatik haratago doan arren. “32.800 lagunetik gora erail ditu Israelek

eta 75.300 lagunetik gora zauritu. Bestalde, desagertuak ere ugariak dira”, aipatu digu Nordinek. “17.000 ume hil dituzte. Palestinan, azken dei hilabetetan, azken lau urteetan munduan izan diren gudateetan beste ume hil dituzte”, azpimarratzen du Mainerrek.

Ez hori bakarrik, laguntza humanitarioa eskaintzen duten erakundeetako kideak ere hil dituzte eta, askotan esaten den bezala, gerra bateko lehen biktima egia izaten da. Urrian gatazka hasi zenetik, 135 kazetari baino gehiago erail ditu Israelgo gobernuak. Horrela, euren hilketak eta bestelako ekintzak agerian lagatzen dituztenak isildu ditu eta, era berean, mezua bidaltzen du gauza bera egin nahi duenarentzat. “Gero, kontua da informazioa nola ematen den. Orain arte ia ez da berba egin genozidio batez. Hau gerra bat zela esaten zuten. Gerra batean bi armada daude bata bestearen aurka, hemen Hamas dago, baina Hamasek Israelekin alderatuta duen



Eibartarrak kalera irten dira Palestinarekin elkartasuna erakusteko. EIBAR PALESTINAREKIN

arma-boterea oso txikia da, ez du zerikusirik. Kasu honetan, Israel biztanleria zibilaren aurka joan da”, Maidarren berbetan.

Egoera horretan gehiago sarkontzen du Maidarrek: “Gazako biztanleak harrapatuta daude, ez dutelako korridore humanitarioirik irekitzen. Beste gatazka armatu batzuetan, Ukrainan ikusi den bezala, zibilak ebakuatzen saiatzen dira (gero ikusi da, Sirian adibidez, errefuxiatu zelaietara eramaten dituztela eta han ere egoera ez dela batere erraza), baina kasu honetan gazatarrak hegoaldera eraman dituzte eta irtenbide barik geratu dira. Gainera, bonba kiloak eta kiloak bota dituzte, eta jendeari ez diote aukerarik eman beste inora joateko”, azaldu digu Maidarrek. “Orain, gainera, jendea gosez hiltzen dute. Gosea erabiltzen ari dira arma bezala. Hori egiten da, baina nazioarteko legedia guztiaren kontra doa. Izan ere, gudetan ere arau batzuk bete beharko lirateke”.

Historia ezagutu gaur egungoa ulertzeko

Nordinen berbetan, “1948an Israelgo estatua sortu zenetik beti saltatu ditu Nazio Batuen Erakundearen arauak. Hasieran, lurrak banatu zituztenean, Israelek lurren %55 bereganatu zituen eta Palestinak %45. Gainera, gune estrategikoak Israeli eman zizkieten, horrek dakarren abantailekin. Harrezkero, palestinarren lur gehiago inbaditu ditu Israelak”. Dena dela, “nahasmen hau guztia ulertzeko”, historia ezagutu behar dela dio Nordinek.

Azaldu digunez, hasieran kolono gutxi batzuk iritsi ziren Palestinako lurraldeetara eta sasoi hartako argazki bat deskribatu digu. “Errefuxiatu bezala iritsi ziren eta itsasontzi batean ikusi daitezke zera esaten duen kartel batekin: Alemaniarrak gure familiak eta etxeak suntsitu zituzten, ez hondatu gure esperantzak”, kontatu digu Nordinek.

>>> Urritik hona, Israelak 32.000 palestinar baino gehiago hil ditu, tartean 17.000 ume



Eibar Palestinarekin taldeak gutxienez hilean behin elkarretaratzea egingo du. YANIRE SAGREDO

>>> "Orain arte ia ez da berba egin genozidio batez, gerra bat zela esaten zuten, baina Israel biztanleria zibilaren aurka joan da"

Hasiera batean, "palestinarek ondo hartu zituzten errefuxiatu horiek", Maiderekin esan digunez. "II. Mundu Gerraren ondoren judutar askok herrialde arabiarretara egin zuten alde. Adibidez, Larachen (Maroko), nire herrian, sinagogak eta judutarren hilerriak aurkitu ditzakezu eta ondo zainduta daude. Elkarbizitza arazo barik ematen da", diosku Nordinek. Bere iritziz, gauza bi hauek ondo bereiztu behar dira: "Judutarrak eta sionistak". Izan ere, berak dioenez, "judutarrak Palestinaren alde daude, manifestazioetara joaten dira palestinaren lurak direla aldarrikatzera, euren liburuak esaten baitu judutarrek ez dutela lurrik".

Palestinara iritsi ziren errefuxiatu horien artean, oster, sionistak zeuden. Theodor Herzl Austrohungariar Inperioan jaiotako kazetari judutarrak sortutako mugimendu politikoari aplikatzen zaio sionista terminoa, 1896an Der Judenstaat (Juduen Estatu) liburuia idatzi ge-

roztik. Mugimendu hori hasieran erlijioan oinarritu ez bazen ere, erlijioa erabili zuen erakargarri gisa estatu judua sortzeko.

Liburuia idatzi zuenean, Palestina ez zen bere lehentasuna, beste leku batzuk aztertu zituzten nazio berria sortzeko: Argentina, Uganda, Zipre, Kenya, Mozambique, Sinai penintsula edo Kongo, "baina agerikoa zen Palestinara joan zirela eurentzat lur promestua delako. Jaungoikoaren herria direla esaten dute", esan digu Nordinek.

NBE, zertarako?

Maideren iritziz, "Hego Afrikan gertatu zen apartheid egoeraren antzekoa ematen ari da Palestinan. Bigarren mailako herritarrak dira. Azken oldarraldia gertatu aurretik ere, euren eskubideak zapalduta zeuden: kontrol-puntu pila bat igaro behar zituzten toki batetik bestera joateko, atxiloketak edo noiz... 75 urteko zapalkuntza da". Gainera, Netanyahu Israelgo pre-

>>> Azken oldarraldia gertatu aurretik ere, palestinarren eskubideak zapalduta zeuden

sidentearen berbak gogoritzen ditu: “Elkarrizketa batean kamerak itzaltzeko esaten du, baina ez dituzte amatatzen, eta bere plana zein den adierazten entzuten zaio: palestinar guztiak bukatzeko. Orain, Hamasek egindako atentatuarekin, hori gauzatzeko aitzakia eduki dute”.

Munduan beste gatazka armatu batzuk daude gaur egun, baina Mainerrek ezberdintasun bat ikusten du Palestinan gertatzen ari denarekin alderatuz: “Giza Eskubideei eta NBE-k duen legediari ez diete kasurik egiten, eta oso esanguratsua da. Beraiek hori egin ahal baldin badute eta inork ez badie ezer esaten, beste bat etorriko da eta berdina egingo du, edo okerrago. Mundu guztiaren begien aurrean egiten dihardute hau guztiak eta edozer gauza esaten, oso libre”.

NBE osatzen duten hainbat herrialde Israelen ekintzen aurka agertu dira eta hainbat erresoluzio eman dira (hala nola, Segurtasun



Elkartasuna adierazteaz gain, Palestinan gertatzen denaren berri eman nahi du taldeak. YANIRE SAGREDO

Kontseiluak Gazarako berehalako su-etena eskatu du), baina munduko zenbait herrialdek (Txinak, Errusiak, Frantziak, Erresuma Batuak eta Amerikako Estatu Batuek) beto-eskubidea dute, eta baten erabakiak munduko beste herrialde guztien erabakia atzera bota dezake. “Hori ez da batere demokratikoa”, Nordinen ustez.

Eibar Palestinarekin taldeak borrokan jarraituko du gatazkak jarraitzen duen bitartean eta gutxie-

nez hilean behin irtengo dira kalera manifestazioa egiteko. Gainera, sare sozialen bitartez (Instagram, Telegram eta WhatsApp) euren jardunaren berri ematen dute eta Palestinan gertatzen ari denaren informazio gaurkotua aurkitu daiteke bertan. “Herritar bezala egin dezakeguna da hau salatzea, ez ahaztea eta ez isiltzea”, nabarmentzen du Mainerrek. “Hori onartzen badugu, pixka bat konplize bihurtzen gara”.



ASIER EZENARRO ARANZIBIA

Mundu berri bat

Modernitateak, 1492an jaio zen mundu-sistemak, ezaugarri nagusi bat izan zuen: Mendebalde nagusitu zen militarri Amerikako, Asiako eta Afrikako herrien aurka. Kolonialismoak herrialde osoak desegin zituen, eta gure gurasoek ondo gogoratzen dute eskoletan dirua jasotzen zela “txinitoen alde”.

Denok ikusi dugu “55 días en Pekin” pelikula nazkagarri hori -nire lagun baten esanetan-. Hantxe ikusten da nola boxerrak inperialisten aurka altxatzen diren; noski, boxerrak ziren pelikulako gaiztoak, eta europarrak eta amerikanoak, onak. Boxerrak Txinako autoestimua nazionala zuten txinatarrak ziren; horregatik zuzendu zuten altxamendua, hori da benetako errealitatea.

Txinatarrek badakite, bai, nola jokatu zuten beraiekin mendebaldeko potentziek; eta badakite, baita, Britainia Handiko erregina, Victoria, XIX. mendean munduko droga salerosketaren buruzagia izan zela ere, eta zelako mina egin zion opioak Txinako gizarteari.

Txinatarrek 1840tik 1949. urtera doan mendeari “irainaren mendea” deitzen diote, baina hori amaitu da betirako. Txina potentzia bat izan zen mendeetan (eta Indiak, britainarrak heldu baino lehen, munduko komertzioaren %25 menperatzen zuen). Gero gau handia heldu zen, eta zapalkuntza, mendebaldearen azpian.

Baina asko aldatu dira gauzak. Bigarren Mundu Gerra aukera bat bihurtu zen Asiako herri askorentzat. Eta mugimendu anticolonialistek indarra hartu zuten.

Orain dela 25 urte galdetu zioten ekonomilari ospetsu bati nola ikusten zuen munduaren etorkizuna ekonomiaren aldetik, eta honakoa erantzun zuen: “Estatu Batuak laborategia, Txina lantegia eta Europa geriatrikoa”. Baina aro hori ere gaingitzen dihardugu. Txinak bere berezko teknologia du, eta militarri gero eta sendoagoa da. Bertako ikasleek europarrak baino maila handiagoa lortzen dute, eta beraiek ari dira eraikitzen munduko hiri berrienak.

Txina, India, Iran, Indonesia... Mundu Berri bat jaio da. Danbor inperial zaharrek aspaldi amaitu dute historiako zabortegian.

"Txinak bere berezko teknologia du, eta militarri gero eta sendoagoa da. Bertako ikasleek europarrak baino maila handiagoa lortzen dute, eta beraiek ari dira eraikitzen munduko hiri berrienak"

Hamar urte zurekin, baina zu gabe

Badira 10 urte joan zinela, Koldo. Momentu batean ere ez zaitugu ahaztu eta zu barik aurrera egiten saiatu gara. Egin ere egin dugu, azken batean, gure artean jarraitzen ez duzun arren, gurekin zaudela sentitzen dugulako. ...eta kitto! Euskara Elkarteko lankideok eta zuzendaritzakideok gogoan izango zaitugu beti, gure barkuko kapitaina.



Ez dugu erraz ahaztuko 2014ko apirilaren lehenengo egun hura. Oraindik ere, joan zinela sinestea kostatzen zaigu. Handia da laga zenuen hutsunea, zure handitasunaren beste. Irribarre batekin ere gogoratzen zaitugu, jakina, zurekin barreak eta umorea ez zirelako falta, eta “alegre biribilketan” jarraitzen dugu zurekin bizitakoak oroitzen.

Bizitza erdia eskaini zenion ...eta kitto!-ri. 20 urte bete barik sartu zinen kolaboratzaile, Markeskua jauregian geundenean. Zeinen sasoi polita izan zen. Zurekin batera hasi zen gazte belaunaldiak demaseko freskotasuna eta indarra eman zion elkarteari, eta haize bolada horrek ekarri gaitu, neurri handi batean, gaur egunera arte. Euskararen alde egiteko inoiz baino gogo gehiagorekin, zuk bezala gure hizkuntza bultzatzeko eta sustatzeko hainbeste lan egin duzuenongatik.

Kolaboratzaile lehenengo (gogoratzen duzu grabadora eskuan Eibarko elkarte gastronomiko guztiak bisitatu zenituela liburu gogoangarri bat sortzeko? ...eta kitto!-rentzat egiten zenuen lehen lana zen eta nolakoa gainera!), langile moduan hasi zinen gero eta koordinatzailea izan zinen ondoren. Agintzea gustatzen ez zitzaion gidaria. Arazoen aurrean lankideekin lasai berba egiteko maisua eta ingurukoak motibatzen lehenengoa.



Euskararen alde lan eskerga egin zuen Koldok, bulegoan zein kalean maitasunez den-dena emanaz.

Barkuko kapitaina joan zitzaigun apirilaren lehenengo hartan, baina zuk lagatako bide-orriari esker zuzen joan gara, bide zuzenetik, zuk lagatako oinarria sendoa zen-eta.

Zenbat aldaketa hamarkada batean

Elkarteak aurrera egin du eta, pentsatuko duzun moduan, asko aldatu da azken hamar urte hauetan. Hazi egin gara, mila ekintza berri jarri ditugu martxan eta beste askori eutsi egin diegu. Adibidez, euskararen transmisioaren inguruan zenuen kezka bultzatuta sortu zenuen Txikitto! aldizkaria herriko eskoletan banatzen jarraitzen dugu. 222. zenbakia izan da banatu dugun azkena. Diseinuari hainbeste begiratzen zenion pertsona izanda, ze pena aldizkaria koloretan ez duzula ikusi. Eta ez hori bakarrik, teknologia berrien eta berrikuntzen inguruko horrenbesteko jakinmina zenuela kontuan hartuta, pentsatzen dugu asko poztuko zinatekeela umeentzat bideoak ere egiten ditugula ikustean.

Teknologiaren kasuan gauzak asko aldatu dira, Koldo. Bizkor gainera. Eta zuk bazenekien hori, beti izan zinelako gure gidaria teknologia berrien munduan barnertatzeko orduan. Txiolari nabarmena izan zinen Twitterren. Txoriak hegan jarraitzen du, orain X izenarekin eta, azken hamarkadan bertako giroa zertxobait nahastu den arren, ziur gaude zukua ateratzen jakingo zeniola.

Zenbat aldiz pentsatu dugu, “zelan poztuko litzateke Koldo hau ikusiko balu”



...eta kitto! Euskara Elkartearen ezezik, herrian ere arrasto handia laga zuen Koldo Mitxelenak. Sostoa Abesbatzan egindako urteetan abesteko zituen dohainak erakutsi zituen, adibidez.



Lankide bikaina zen Koldo, baina lagun handia batez ere. Oroitzapen ahaztezina laga zuen gure artean.

Facebookek ere hor jarraitzen du, baina berritasunak etengabe iristen dira eta olatu berriak hartzen saiatzen gara. Iritsi ziren Instagram eta TikTok, eta adimen artifizialaren eztanda eman da berriki. Ez dakizu makinak nolako gauzak egiteko gai diren!

Webgune berria ere martxan jarri dugu. Zure jakinminarekin asko gozatuko zenuke sasoi honetan eta bidea irekitzen arituko zinateke, ziur! Zenbat aldiz pentsatu dugu, “zelan poztuko litzateke Koldo hau ikusiko balu”.

Zure arrastoari utsiz

Gutxi dira gogoan ez zaitugun egunak. Lanean gogoratzen zaitugu, baina lanetik kanpo ere. Lankidea ez ezik, laguna zinelako. Dena ematen zenuen, barruan eta kanpoan, eta zure energiak gure artean jarraitzen duen arren, zer ez genuke emango oroitzapen hori momentu txiki batez bada ere errealitate bihurtu eta berriz zurekin egoteko.

Harro gaude, harro zutaz eta harro gutaz. Gure bitetik zintzo goaz, zure arrastoari utsiz. Bidea egiten jarraituko dugu, eta jarraituko dugu gertu zaudela sentitzen. Zurekin, baina zu gabe.

Eibar txirrindularitza profesionalaren erdigune

Eibarrek etzi txirrindularitza profesionalaren protagonismo nagusia hartuko du beste behin, Itzulia Basque Countryaren aurtengo edizioaren amaierarekin. Astelehenean Irunen hasi zen Itzuliko azken etapa gure herrian hasi eta amaituko baita, 138 kilometroko ibilbidea osatu eta gero. Azkena izateaz gain, Itzuliko etapa nagusia ere izango da biharkoa, jokatuko diren



Zaletuen animoek ikutu berezia emango diote Itzuliko biharko etapa erreginari.

ia 138 kilometroetan zazpi mendate igoko dituztelako tropelekoek. Zaletuek, gainera, goizetik bizi ahal izango dute gurpilen arteko giro berezi hori, herria hartuko duten txirrindulari, talde eta enparauekin. Sinadura-kontrola, bestalde, 12:16an hasi eta 13:31n amaituko da. Jarraian, jakina, irteera emango zaio lasterketari (neutralizatua, hori bai) arratsaldeko 13:47an.

2023an gertatu zen bezalaxe, hauxe izango da OCETAk antolatutako proba osoko etapa nagusia. Oso etapa exijentea eta selektiboa izango da hasiera-hasieratik, eta sailkapen orokorreko txirrindulariak izango dira eguneko protagonista handiak. Aurreko edizioetan ikusi den moduan, lasterketa kontrolatu ahal izateko talde ona izatea oso garrantzitsua izango da.

Lasterketak 1. mailako hiru mendate izango ditu: Azurki (5 km, %8ra), Krabelin (5 km, %10era) eta Izua (4 km, %9ra), 2. mailako Gorla eta 3. mailako Elkorrieta, Trabakua eta Urkaregi ere izango dira osatutako egunean pasatu



Iazko azken podiuma: Ion Izagirre, Jonas Vingegaard irabazlea eta Mikel Landa.

beharreko gainak. Esprint bereziak, bestalde, Markina Xemeinen, frontoiaren aurrean, eta Eibarren bertan izango dira. Helmuga, azkenik, orain ere herria erdian izango da, Toribio Etxebarria kalean; Arrateko helmuga Eibarko Txirrindulari Elkartek antolatuta maiatzean jokatuko den emakumezkoen probarako geratzen da.

100 urte egiten ditu Itzuliak

63. edizioa bada ere, 1924an jokatzen Euskal Herriko Itzuliaren lehenengo edizioa. Zazpi edizio egin ziren jarraian, 1930era arte. Ondoren, 1935ean beste bat egin zuten, zortzigarrena. Eta hurrengo 1969koa izango zen; ordutik geratu barik, urtero, izan da jokoan pandemiaren urte berezi hori iritsi arte. 2020an egin zuen probak kale bakarra, eta ordutik oraingoa izango da laugarrena jarraian. Aipatutako azken hiru urte horietan Roglic, Daniel Felipe Martinez eta Vingegaard izan dira txapela jantzi dutenak. 2019an irabazi zuen Ion Izagirrek, bestalde, bigarren egin zuen 2022an eta hirugarren izan zen iaz.





IBILBIDEAREN ORDUTEGIA



DORTSAL AIPAGARRI BATZUK

1 Vingegaard	34 Hindley	105 McNulty
3 Kuss	41 Uran	107 Vine
11 Evenepoel	75 Geoghegan Hart	111 Pello Bilbao
14 Landa	81 Gaudu	161 Carlos Rodriguez
21 Alex Aranburu	91 Ion Izagirre	163 Omar Fraile
31 Roglic	101 Ayuso	181 Gail

MENDATEAK

- 11. km-tik 13,5. km-ra
ELKORRIETA
2 kilometro eta erdi, %6,7ra

- 20. km-tik 25. km-ra
AZURKI
5 kilometro %7,4ra

- 35,5. km-tik 45. km-ra
GORLA
9 kilometro eta erdi, %5,7ra

- 64,5. km-tik 69,5. km-ra
KRABELIN
5 kilometro, %9,6ra

- 88,5. km-tik 92. km-ra
TRABAKUA
3 kilometro eta erdi, %7,1era

- 106. km-tik 110. km-ra
IZUA
4 kilometro, %9,2ra

- 119,5 km-tik 124,5. km-ra
URKAREGI
5 kilometro, %4,8ra
– goriz Eibarko pausuak –



- 13:47 **IRTEERA neutralizata**
- 14:04 Saturixo
- 14:07 Elgoibar
- 14:12 Altzola
- 14:24 **Elkorrieta (3. maila)**
- 14:29 Lastur
- 14:41 **Azurki (1. maila)**
- 14:44 Madariaga
- 14:55 Azkoitia
- 15:11 **Gorla (2. maila)**
- 15:22 Bergara
- 15:28 Mekolalde
- 15:34 Soraluze
- 15:41 **Mendate hasiera**
- 15:48 **Krabelin (1. maila)**
- 16:01 Barinaga
- 16:04 Etxebarria
- 16:08 Markina Xemein (sprinta)
- 16:22 **Trabakua (3. maila)**
- 16:29 Mallabia
- 16:36 Ermua
- 16:39 **Eibar (sprinta)**
- 16:43 **Mendate hasiera**
- 16:49 **Izua (1. maila)**
- 16:59 Barinaga
- 17:01 Etxebarria
- 17:11 **Urkaregi (3. maila)**
- 17:20 Elgoibar
- 17:30 **Eibar (HELMUGA)**
– goriz Eibarko pausuak –





Eguraldi txarrak mendi-ibiliak egitera behartu zituen Deporreko mendizaleak Aste Santuan

Martxoaren 28an Gredos mendikaterantz abiatu ziren Klub Deportiboak antolatuta Aste Santuko irteeran parte hartu duten mendizaleak. Toledoko lurretan baina Avila probintzia ukitzen dagoen Velada herrira heldu ziren eguen horretan. Eguraldia, baina, ez zebilen eurei laguntzeko; agian, bai ur premia duten eskualdeei; alde

horretatik, behintzat, ezin hobeto nekazari eta abeltzaintzat. Hemendik joandakoek diotenez, “ez ditugu mendien kaskoak apenas ikusi! Zuriz zeuden, bai, elur geruza izugarriekin. Bada, bidezidorlaritza edo xendazaletasuna praktikatu dugu. Esaterako, Arenas de San Pedro gazteludun herri ezagunetik, San Pedro de Alcántara monas-

tegitik pasatuz, El Arenal herrira burutu genuena. El Arenal ezaguna da bere pizina naturalengatik eta etnografiari ematen dioten garrantziagatik”.

2.021 metroko Torozo mendia zuten jomugetako bat; baina, bitan igotzen saiatuta ere, ezin izan zuten: elurtza handiak eta behelainoak ezinezkoak bihurtu zituzten egindako ahaleginak. 21 lagunekoko taldeari atentzioa eman zien “nola, bertan eta haran gehienetan, pikuondorri eskaintzen dioten arreta, gero, freskoan eta, batez ere, sikaturik, izaten duten estimuarekin”. Taldeak onartu duen bezala, “naturaren ispilu izan dira egunak; eta gu, mendizaleok, haien aginduetara”.

Datorren asteburuan izango dute hurrengo irteera, ohikoa orainoan. Apirilaren 13an Zegamatik Araiarako ibilbidea izango dute zain, bidean 1.524 metroko Aizkorri gaina egiteko.



Asola Berrikoak onenen artean Gipuzkoako Hiru-txirlo Txapelketaren bigarren tiraldian

Elgoibarko San Miguel bolatokia jokatuak 53. Gipuzkoako Hiru-Txirlo bola joko Txapelketaren barruko bigarren jardunaldian, Asola Berriko Oier Ugarteburu eta Ga-



rikoitz Rodriguez bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu ziren, tiraldia irabazi zuen Elgetako Gorka Bereziartuaren ondoren. Elgetarrak zortzi txirlo bota zituen eta Eibarko beste bi bolariak zazpi. Euren atzetik sailkatu ziren San Migueleko Angel Ibarluzea eta Unai Loiola eta Floreagako Santos Muñoz, euretako bakoitza sei txirlorekin. Guztira 73 bolarik hartu zuten parte aipatutako tiraldi horretan.

Txapelketako hirugarren tiraldia Elgetako bolatokia jokatu dabil. Apirilaren 6ko tiraldi hori arratsaldeko 17:00etan hasiko da, ohiko bidetik.

Urbat Urkotronikek Dos Hermanas hartuko du bihar Donostian

Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, waterpoloko 2. Maila Nazionalako beste partidu bat izango du Urbateko lehen taldeak denboraldi honetan "bere etxea" bihurtu den Donostiako Paco Yoldi igerilekuan. Oraingoan eibartarrek Dos Hermanas talde andaluziarra izango dute aurkari, sailkapeneko goiko postuen bila daudenen arteko lehiaren barruan. Une honetan Waterpolo Malaga dago gorengoan, Urbat bi puntura dago eta Dos Hermanas asteburuko aurkaria hirugarren da laura. Lehen itzulian Sevillan jokatuak neurketan eibartarrak 12-14 nagusitu ziren, partidu bikaina eginez; bihar, ohikoari jarraituz, 20:15ean hasiko da partidua.



Gaizka Gonzalezek eta Jon Sotak Euskal Herriko selekzio infantilean jokatu dute.

Aurretik, gaur bertan, Urbateko gizonezkoen bigarren taldeak WP Navarra hartuko du Orbea kiroldegian, Euskal Herriko Ligaren barruan. Eta Urbiak emakumezkoen senior mailako taldeak etzi eguerdian Leioa WP hartuko du Azken Portuko igerilekuan.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila

Tenerife - EIBAR (etzi, 18:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR B - Burgos (etzi, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - Derio

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Peña Ath. Santurtzi (atzo, 19:30)

Ohorezko Jubenil Maila

EIBAR - Cultural Durango (gaur, 18:30)

Jubeniletako Nazional Liga

EIBAR B - Zarautz

Kadeteetako Euskal Liga

Indautxu - EIBAR

ESKUBALOIA

Gizonezkoen 1. Maila Nazionala

Ereintza - MEK EIBAR (bihar, 19:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Legazpi - MEK EIBAR B (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

URBAT - Dos Hermanas (bihar, 20:15)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

URBAT B - WP Navarra B (gaur, 21:30)

Emakumezkoen Euskal Herriko Liga

URBIAK - Leioa WP B (etzi, 12:00)

GINNASIA ERITMIKOA

Euskal ligaren 2. Fasea

Senior eta Oinarri Jubenil taldeak

Nahia eta Haizeder Arguiz bakarka

-zintarekin- (etzi)

Ibar errugbilari Lehoiek

Eibar Rugby Taldeko Aiora Ibar jokalaria Espainiako selekzioarekin dabil Europako Txapelketa prestatzen. Aurreko zapatuan Portugalgo selekzioari irabazi zioten 24-0, eta zapatu honetan Herbehereak izango dute aurkari, ondoren Suediaren kontra jokatzeko. Azpeitiarrak duen kalitatea erakutsi nahi du Lehoiek jarraian irabazi dezaketenezkoen txapelarekin. Aiora Ibar MVP izan zen Bartzelonari irabazitako jardunaldian.



ANTXON NARBAIZA

M^a Paz Ibeas, in memoriam

94 urtez itzali zaigu bere Hondarribiako etxean M^a Paz, Juan San Martinen alarguna. Urteak ziren Eibarko Mekolatik Hondarribiako La Marina-ra bizitzera jo zutenetik. Horrelakoetan oroitzapenak trumilka datoz, urte asko izan baitira M^a Paz gure artean bizi izan dena. Oroitzapenak, memoriak agindurik, bitxiak izaten dira: maiz, eta, urteen poderioz gehienetan, norberak bizitakoaren irudi garbia galdu egiten da, eta, gerta liteke gertatukoaren gainean beste narrazio bat sorraraztea gure kasa, halako kontakizun berezi bat. Horregatik esan ohi da, gutariko edonor literatur egile, agian frustratua, baina zelambaiteko sortzailea bihurtzen dela.

M^a Paz, oroitzen dugu Juanitorik gabe, Klub Deportiboak Kalamuan eraikiarazi zuen aterpearen inaugurazioan. Zelan amabitxi izan zen eta lore-sorta bat eman zitzaion.

Oker ez banago, Madril aldetik etorritako familia ziren Ibeastarrak. Baina Eibarrerako bidean, Burgosen ere bizi izan ziren. Eibarrera iritsi eta apopilo bizi izan ziren Urkusuan.

Anaia-arrebak ziren M^a Paz eta Antonio. Antonio M^a Carmen Retenagarekin ezkondu zen. Mendizale amorratua eta hiztun dotorea, armagintzara jo zuen lanbide aldetik.

M^a Pazek, berriz, jostun ofizioan jardun eban. Ofizioa erakusten zuen etxean. Trebea zen bere lanbidean M^a Paz.

1963an ezkondu ziren neba-arrebak. Inauterietako asteartean M^a Carmen eta Antonio, eta abuztuan, M^a Paz eta Juanito. Unai eta Oier semeak izan zituzten.

Nola ahantz baina Mekolako etxea? M^a Paz Juanitoren errealitatea izaten zen, ez itzala, errealitatera lotzen zuen pertsona. Izan ere, Juanitorentzat praktikoki denbora ez zen existitzen, haren izena baino ez zuen ezagutzen, hots, magnitudea baino ez. Baina ez haren eragina. Zenbaitetan, hain zen gure berriketa luzea izaten, iluna ere aise etortzen zitzaigula. Orduan M^a Paz agertzen zen tortila bana prestatuko zigula esaten! Burua paperetik ia jaso gabe, Juanitok jarraitu egingo zuen: -Hi, zelan esango heuke: Homes de pau, bakegizonak, bakezko gizonak....?

Salvador Espriuren bertso haien itzulpenak presa zeukan, biharamunerako bidali behar baitzuen Donostiara.

Zigarroa eskuan, burua galdu gabe, itzali da M^a Paz, Unai semeak aitortu digun bezala. Goian bego, bizitza horren oparoa izan duen andrea.



"Zigarroa eskuan, burua galdu gabe, itzali da M^a Paz, Unai semeak aitortu digun bezala"



zarelakopara

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea



Udaberri egarría. RAMONBEITIA

IMANOL ITUIÑO • Magoa



Imanol Ituiño mago bilbotarrak magia-tailerra eskainiko du Eibarren apirilaren 25ean. Abenduan bueltatuko da, orduan ikuskizun batekin.

“Magia helduei zuzenduta dago erabat”

Apirilaren 25ean Eibar magiaz beteko da. Izan ere, Imanol Ituiño magoa ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokaletan izango da, 19:00etan, helduentzako magia tailerra eskaintzen. 16 urtetik gorakoei zuzendutako ekimena da. Izen-ematea zabalik dago dagoeneko eta elkartea@etakitto.eus helbidearen bitartez edo www.etakitto.eus webguneko inprimakia betez egin daiteke. Sarrerak 5 euro balio du (4 euro elkarteko bazkideentzat).

Ikusentzuzkoen komunikazioan lizentziatu eta interpretazio graduondoa egin ondoren, mago profesional bezala diharduzu. Hainbat sari lortu dituzu dagoeneko. Zerk inspiratu zintuen magoa izateko? Betidanik egon naiz magia munduan. Txikitatik hori izan da nire bizitza. Ikusentzuzkoen komunikazioa aukeratu nuen ikasketa gisa, magoa izaten lagunduko zi-

dalakoan. Pozik nago, magia egitera dedikatzeaz gain, beste helburu bat ere lortu dudalako, zirkuaren munduan murgiltzea, alegia. Gure Zirkuko magoa naiz. Orain dela bi urte ikuskizunaren parte naiz.

Magia umeekin lotzeko joera dago baina, adibidez, Eibarko tailerra helduentzat antolatu da.

Magiak badauka xarma berezi bat eta haurrak erakartzen ditu beti. Ez

dakit zergatik, baina magia umeentzako gauza dela pentsatzen da. Eta badago magia umeentzat, baina ez dauka zertan izan. Batez ere familientzako saioak egiten ditut, adin desberdinetako jendearentzako. Niri, egia esan, gehien gustatzen zaidana helduentzako magia egitea da. Umeek ikusi dezakete, noski, baina magia, fundamentu logikoak hausten dituen unetik, helduei zuzenduta dago erabat. Ume bat entretenitu daiteke, baina umeak magia sentiaraztea oso zaila da.

Nola definituko zenuke zure lana?

Mago bezala asko gustatzen zait jendearen parte-hartzea. Magiak daukan gauza bat oraingotasuna da eta, hori aurrera ateratzeko, oso inportantea da publikoarekin harreman estu bat edukitzea eta bapatekotasuna. Horri laguntzeko pila bat trikimailu daude. Horretaz gain, asko gustatzen zait magiaren historia; nahiko *frikia* naiz horretan eta asko gustatzen zait antzinako trikimailuak errekuaratzea eta beste buelta bat ematea.

Zer aurkituko dugu ...eta kitto!-n emango duzun tailerlean?

Horrelako tailerretan trikimailu batzuk erakusten ditut, ez oso zailak. Asko gustatzen zait detailtxoak ondo barneratzea; nahiz eta oso erraza izan, trikimailu hori egiteko behar diren erremintak trimimailu konplexu bat egiteko behar diren erreminta berberak dira. Beraz, hasieratik ondo ikasten baditugu, errazago izango da gauza konplikatuagoak ikastea. Horrelako tailerretara oso jende desberdina hurbiltzen da, eta asko gustatzen zait nahasketa hori gertatzea. Interes desberdinak izan ditzateke, baina gauza berdinak ikasten ari dira.



Euskararen Transmisioa Mintegian parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Maiatzaren 8an egingo da *Euskararen soziaziazioa eta transmisioa XIV. Mintegia*, goiz osoa beteko duen egitarauarekin, eta bertan parte hartu nahi duteneztat izen-ematea zabalik dago. Mintegia antolatzeaz arduratzen den ...eta kitto! Euskara Elkartetik adierazi digutenez, “transmisioak, gaitasuna ezezik, hizkuntzarekiko baloreak eta ardura ere dakartza. Gai hau hain garrantzitsua izanik, ezinbestekoa da alor hori aintzat hartzea, modu estrategikoan lantzea eta plangintzak definitzea. Urtero antolatzen dugun mintegian, gaiaren inguruko adituak eta puntako hizlariak ekartzeaz gain, gaia askotariko ikuspegitik lantzen ahalegintzen gara, askotariko estrategia eta plangintza koordinatuen beharra dagoela uste dugulako”.

Izen-ematea zabalik www.etakitto.eus webgunean

Aurtengo mintegia Eibar Kirol Elkartearen prentsa aretoan egingo da, eta lehen hitzaldia (*Hizkuntzaren funanbulistak. Adin, genero eta hizkuntzaren arteko orekak eta desorekak*) Jaime Altuna EHUKo irakasle eta ikerlariak emango du, 09:10ean. Haren atzetik arituko dira Garazi Sanchez EHUKo NOR ikerketa taldeko ikerlaria, Garikoitz Goikoetxea Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko buru eta ikerlaria, Ibai Sueskun Errigora eta Agerraldiko kidea eta Esther Lakasta Perez-Itzarbe Dindaia Fundazioko teknikaria.

Parte hartzeko interesa dutenek ...eta kitto! Euskara Elkartearen webgunean (www.etakitto.eus) eman dezakete izena, zuzenean, bertan dagoen izen-emate orria beteta. Helbide horretan ikus daiteke ere aurtengo mintegiaren egitaraua.



Idoia Asurmendiren kontzertua apirilaren 13an

Hurrengo asteburuko zapatuan, apirilaren 13an, aurkeztuko du *De amary desandar* lan berria Idoia Asurmendi artista aramaioarrak, 20:00etan, Coliseo antzokian. Maitasunaz, hazkunde pertsonalaz eta bide horretan sortutako orotzapenez hitz egiten duten kantua bildu ditu abeslariak, bere bigarren diskoa den honetan. Sarrerak 12 euro balio du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Kantu saio irekiak eta larrain dantza errepassoa antolatu ditu Arrate Kultur Elkarteak

Datorren astetik aurrera bi ekimen hartuko ditu Arrate Kultur Elkarteak: astelenean, 19:00etan, euskal kanta tradizionalen letra eta doinuak lantzen jarraitzeko saio irekia egingo dute. Aurrerantzean hamabostean behin batuko dira, elkartearen lokaletan. Eta Eibarko Euskal Jaiaren egitarauaren barruan, larrain-dantza errepassatzeko saioak egingo dituzte apirilaren 10etik maiatzaren 22ra, eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara Arrateko Andra Mari ikastetxean. Izen-ematea arratekultu@gmail.com helbidean edo 638284912 telefonoan egin daiteke (5 euro, bazkideek dohainik).



Gaur zabalduko dute Artisten Elkartearen erakusketa

Gaur 19:00etan inauguratuko dute Eibarko Artisten Elkartearen urteroko erakusketa, Portalean. Elkarteko bazkideen artelanetan aniztasuna izaten da nagusi, materialei eta gaiei dagokienez. Pinturaz gain, zurean egindako lanak, marrazkiak, eskulturak, zeramikak, grabatuak eta argazkiak ikusi ahalko dira, hilaren 28ra arte. Ohikoa den moduan, aurten ere elkarteko kideen batek egindako artelana erabili dute erakusketa iragartzeko, eta oraingo honetan Abundio Maestoren lana gogoratu nahi izan dute.



Ordu eta toki aldaketa zineforum feministaren saioan

Pagatxa emakume elkarteak Berdintasun Zerbitzua-Andretxearekin elkarlanean antolatzen duen zineforum feministaren hurrengo saioa apirilaren 12an izango da. Céline Sciamma zuzendariaren *Retrato de una mujer en llamas* filma emango dute, eta Izaskun Rodríguez Elkorok dinamizatuko du saioa. Oraingoan aldaketak daudela ohartarazi dute antolatzaileek, ordutegian zein emanaldia egiteko tokian: Armeria Eskolako areto nagusian izango da, 18:00etan. Betiko lez, sarrera librea izango da.



Usartza Txistulari Taldearen udaberriko lehen kontzertua

Domekan, 12:45ean hasiko da Usartza Txistulari Taldearen kontzertua, Untzagan (udaletxeko arkupeetan). Joko dituzten piezen artean doinu herrikoiak, dantza doinuak eta 1928. urteko Bilboko txistulari banden lehiaketaren derrigorrezko obra izan zena daude, besteak beste.

Adela Gipuzkoa elkartearen aldeko antzerki emanaldia

Los olivos pálidos antzezlan eskainiko du La red Teatro taldeak Coliseon, apirilaren 14an, 12:30ean. Lana ADE-LA Gipuzkoa Elkartearen eta Udaleko Kultura sailaren eskutik ikusi ahal izango da. Maite Lorenzo, Juanma Cano, Nerea Ariznabarreta eta Enrique *El Vaka* ari tuko dira, Mikel Areitioaurtenak zuzenduta. Sarrerak 10 euro balio du eta diru guztia AEA duten gaixoei laguntzeko izango da.



Danborradan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete



Antolatzaileek gogorarazi dutenez, Sanjuanetako danborradan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, haur eta helduentzat. Parte hartu nahi dutenek <https://formularioak.eibar.eus> helbidean aurkituko duten formularioa bete beharko dute. Entseguak, bestalde, apirilaren 24an hasi eta ekainaren 19an amaituko dira; eguaztenetan izango dira, 19:00etan haurrena eta 20:00etan helduena, eta gutxienez lau saiotara joatea gomendatzen dute arduradunek.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6		9		1	8			
7	1		5	9				
5		4			3			
2								8
1		5				4		7
	4							9
			8			9		6
				7	6		1	2
			3	2		8		5

9	2	8	6	2	6	1	8	7
2	1	0	7	7	8	5	4	6
9	7	6	1	0	8	2	7	6
0	5	0	2	0	1	9	8	8
2	9	7	2	8	6	5	0	1
0	8	1	5	9	7	1	0	8
1	0	1	0	9	2	8	8	9
8	2	9	7	6	0	0	1	2
7	0	8	9	1	0	2	0	9

soluzioa

SUDOKU

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		7			9			
		4	1		3			
5	2			1	8			
1	3							6
2	8		6		3			9 1
	6							5 2
				4	2			3 7
				7		6		2
				6				1

soluzioa

8	1	9	0	0	2	0	2	0
0	0	9	1	2	8	8	8	0
2	0	0	2	9	6	0	1	0
2	0	0	0	1	1	2	0	9
1	8	9	0	0	9	2	0	2
0	0	2	0	0	9	0	0	1
0	2	0	8	8	8	1	2	0
8	0	2	0	0	5	1	8	6
0	8	1	9	6	2	0	2	8



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



Apirilak 5/11

BARIXAKUA 5

INAUGURAZIOA

19:00 Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa. Portalea.



ZAPATUA 6

TXIRRINDULARITZA

13:47 Irteera neutralizatua.
15:41 Mendate hasiera (Azitain).
15:48 Krabelin gaina.
16:39 Esprint berezia.
16:43 Mendate hasiera.
16:49 IXua gaina.
17:30 Helmuga, Toribio Etxebarria kalean.



DOMEKA 7

ZUHAITZ EGUNA

09:30 Parte-hartzaileak Urkoko igoerako aparkalekuan bilduko dira, zuhaitzak landatzera joateko. IXua.



MUSIKA

12:45 Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzaga.



ASTELEHENA 8

KANTUAK

19:00 Kantu saio irekia. Euskal kanta tradizionalak. Arrate Kultur Elkarte.



EGUAZTENA 10

DANTZA

19:00/21:00 Larrain-dantza errepassoa, Euskal Jairako. Arrateko Andra Mari ikastetxea.



EGUENA 11

HITZALDIA

10:00/12:00 "Krisi klimatikoa", Luis Alejoren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).



MUSIKA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaienez. Untzaga jubilatutxuea.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 16ra arte:
- "AMA TA ASUNAK", June Baonza Pagaldaireren proiektua. (Andretxea).

Apirilaren 28ra arte:
- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA. (Portalea).

Eskualdeko Agenda

MUTRIKU

XXVII. BERDEL EGUNA

5an (BARIXAKUA)

19:00 / Kaletik

Pintxopotea

6an (ZAPATUA)

10:30/14:30 / Kaian

Arrantza-tailerrak

11:00/15:00 / Kaian

Azoka

13:30 / Kaian

Pintxoaren degustazioa

19:00 / Kaian

Kontzertua: Casus Belli

eta Los Zopilotes Txirriaos



MENDARO

6an (ZAPATUA)

KILIMON TRAIL

16:00 / Herriko Enparantza



DEBA

7an (DOMEKA)

HEGAZTIAK BEHATZEKO

IRTEERA ANDUTZERA

09:00 / Itziarko frontoitik



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 6an: 19:45, 22:30
- 7an: 20:00
- 8an: 19:30

“Stella. Víctima y culpable”
DRAMA



2023/Alemania/120'
Zuzendaria: Kilian Riedhof
Aktoreak: Paula Beer, Jannis Niewöhner, Bekim Latifi
Belikoa/II. Mundu Gerra

2 ARETOA

- 6an: 17:00, 19:45, 22:30
- 7an: 17:00, 20:00
- 8an: 19:30

“Pájaros”
KOMEDIA



2024/Espainia/100'
Zuzendaria: Pau Durá
Aktoreak: Luis Zahera, Javier Gutiérrez, Teresa Saponangelo
Road Movie/Hegaztiak

ANTZOKIA

- 6an: 17:00, 19:45, 22:30
- 7an: 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- 8an: 19:30

“Matusalén”
KOMEDIA



2024/Espainia/119'
Zuzendaria: David Galán
Aktoreak: Julian Lopez, Miren Iburguren, Antonio Resines
Musikala/Unibertsitatea

ANTZOKIA

- 6an: 17:00
- 7an: 17:00

“Luca”
ANIMAZIOA



2021/AEB/95'
Zuzendaria: Enrico Casarosa
Abenturak/Lagunartea

kili_klik  kili_klik

argazkilaritza fotografia

www.kiliklik.eus

646114443 · kilimaksortzen@gmail.com
Indalecio Ojanguren 1 behe

ek!

Zure publizitatea
herriko aldiakarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Grupo Asistia

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Otasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**Enrique
Arias Vitoria**

2. URTEURENA
2022/04/05

“Izarren hautsa
bihurtuko zara, baina
zure maitasunaren
distirak betirako
argituko ditu
gure bihotzak”

- ZURE FAMILIA -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ION!** Martitzenian 4 urte bete zenuazuen-eta! Patxo eta besarkada bat etxeko guztion partetik!



Zorionak, **JULENE,** gaur 6 urte egiten dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Xuhar, Euken eta Pauleren partez.



Zorionak, **ELENE!** Bixar urtetxua beteko dozulako. Patxo mordua famelixaren eta, batez be, zure neba Jonen partez.



Zorionak, **VEGA!!!!** 4 urte bete dozuz-eta!!!! Musu haundi bat etxeko guztion partez!



Zorionak, **IRATI!** Bixar 4 urtetxo beteko dozuz-eta. Jarraitu oin bezain alai. Musu potolo bat Unai, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **OMAR,** 7 urte bete dozun honetan. Asko maite zaittuen zure aitta eta amaren partez.



Etxeko txikixa, baiña 6 urte haundi beteta, **LIZAR!!** Asko maite zaittugu!



Zorionak, **JULEN,** txapeldun! Etzi 7 urte beteko dozuz. Merendola haundixa egingo dogu ospatzeko!! Musua famelixaren eta, batez be, Anderren partez.



Zorionak, **IRAIA,** bixar 13 urte beteko dozuz-eta. Ondo-ondo ospatu. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, **KENAN** (martxuaren 29xan 3 urte) eta **TELMO** (apirillaren 2xan urtetxua). Musu haundi bat famelixaren partez.

Ramon Argiñao Urionabarrenetxea

2024/03/24

"Zurekin partekatutako uneak beti izan dira aberasgarriak"

ASKO MAITE ZAITUGU
- FAMELIXIA ETA LAGUNAK -

Beatriz Irureta Manzidor

2024/03/23

"Maite ditugunen argia ez da sekula emetatuko"

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokala salgai (102 m2) Legarreo dorrean, egokia komertziorako edo garaje bezala erabiltzeko. 626719802 eta 659504114.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiariarekin). Baita umeak zaintzeko uztailan eta abuztuan. Orduka. 636841158.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: etxeak, tabernak, pegorak... 688758630.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Externa. 677259560.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. 634651895.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako: zainketak, garbiketarako, etb. 612228607.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldean eta gauetan nagusiak zaintzeko. 643464307. Virginia.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 632881068.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 614328776.
- Gizonezkoa eskaintzen da pintore bezala: pladur etb. Esperientzia. 631509262.
- Manikura eta pedikura egiten da etxeetan: tradizionala eta gel basikoan. 632881068.
- Geriatria-laguntzaile euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. 660511781 eta 943742330.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta mekaniko bezala. 605363057.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. 613215006.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602109464.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 642671818.
- Neska eskaintzen da etxean lan egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. 661181824.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Hobe esperientzia badu. 661955980.
- Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun erdiz lan egiteko pertsona behar du, maiatzetik abuztura.

- Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidalitako curriculum: hornikuntza@gmail.com
- Ilea zaintzaile behar da. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. Bidalitako curriculum: ayerrav@gmail.com. 626524949.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kanping-denda kanadiarra salgai. 4 lagunentzako. 30 euro. Ia berria. 659538158. Iñaki.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak



abontza
clínica estética

Medikuntza
- Dermatologia estetikoak
- Aurpegia gaztetzea
- Barizeak

Kirurgia
- Betsalak, belarriak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoa

Arragueta 2bis B, Entrepantia A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204113



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com


Podologoak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOAK

838200124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208




BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tñoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologoak

PSIKOLOGIA PSIKOTERAPIA

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO ARRETA PSIKOLOGIKOAK

GONZALEZ DE MENDIBIL
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria. 5. 1-C 623 45 31 95

Psicologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776



Isasi, 37
943 89 92 21



<https://eibarbhi.hezkuntza.net/eu/>

BATXILERGOA
AURREMATRIKULA
apirilaren 8tik 19ra



Jardiñeta, 3 B
943 89 92 62